


1 HEGO ETA IPAR GLOBALA, BOTEREAREN ANTOLAKETA

- Zergatik dago mapa alderantziz?
- Nork erabaki zuen iparraldea goialdean eta hegoaldea behealdean egongo zirela?
- Zertaz ari gara Ipar edo Hego globalaz ari garenean?



2 AMAZONIAKO OIHANAREN DESAGERTZEA, GUZTION BIZITZA ARRISKUAN

- Zergatik da hain garrantzitsua Amazonia munduaren biziraupenerako?



Irudia:

Torres Garcia – Amerika Alderantzizkatua.

3 JATORRIZKO HERRIAK, AMERIKAKO LURRALDEEN ZAINZTAILEAK

Zeintzuk dira filmaren protagonistak?



- Zergatik deitzen diegu komunitate indigenei jatorrizko herriak?
- Latinoamerikan zein beste jatorrizko herri ezagutzen dituzu?

5 EKOZIDIOA BIZITZA AKABATZEN DUTEN LOGIKAK

EKO: _____

ZIDIOA: _____

- Nolakoa uste duzu dela gure gizartearen ikuspegia, antropozentrista ala biozentrista?

4 ERAUZKETA-INDUSTRIA ETA LURRAREN MERKANTILIZAZIOA

- Zertaz ari gara (petrolio) erauzketaz ari garenean?
- Zer erauzi du Europak Latinoamerikatik?
- Zer dakar estraktibismoak Latinoamerikara?

PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

ERAGINAK NATURAN

Zer kutsadura edo natura hondamendi identifikatu dituzu?

ERAGINAK OSASUNEAN

Zer osasun-arazo aipatzen dira eta nori eragiten diote?

GENERO-ERAGINAK

Zergatik eragiten die gehiago emakumeei gainerako biztanleei baino?

ERAGINAK KOMUNITATEAN

Zertan aldatu da Waorani komunitatearen bizimodua?

MUNDU ORDENAREN PARADOXAK

“POBREAK GARA ABERATSA DELAKO ZAPALTZEN DUGUN LURRA” - E. Galeano

Sakrifizio guneetan baliabide naturalen ustiapenen ondorioz, giza eta natura eskubideen urraketa larriak ematen dira eta, era berean, egiten den inbertsio ekonomikoa oso urria izaten da. **Baliabideen madarikazioa** edo **ugaritasunaren paradoxa** kontzeptuak erabiltzen dira lurralde hauei erreferentzia egiteko. Izan ere, mineral eta erregaietan aberatsak diren eremuak ustiatuak eta txirotuak izaten dira iparralde globaleko elite eta gizarteak aberasteko.

Amazonian hamarkada batzuetatik hona, multinazionalak eta estatuko enpresek urtero urre beltzez beteriko milaka upel ateratzen dituzte oihaneko beste hainbat baliabideekin batera. Gaur egun, Amazoniako azaleraren % 60 baino gehiago petrolio-erazketen menpe dago, eta erazketek, nekazaritza-ustiapen intentsiboarekin batera, beste paradoxa bat eragin dute, munduko birikek xurgatzen dutena baino CO2 gehiago isurtzea, hain zuzen.

Paradoxa bat hasiera batean zentzurik ez duen edo kontraesankorra dirudien zerbait den arren, sakonago arakatuta atzean egia ezkutatzen duen gertaera bati egiten dio erreferentzia. Paradoxek agerian uzten dute gure iruditegian “normala” dirudienak batzuetan ustekabeko edo bidegabeko ondorioak dituela. Munduko arazoei buruz sakonago pentsatzen laguntzen digute.

■ AUKERATU BI ELEMENTU:

Talde bakoitzak jaso duen fotograma aztertuta, aukeratu elkarren artean antagonikoak, kontraesankorrak edo deigarriak diren bi elementu, objektu edo ideia.

¿Zeintzuk dira elementu honen ezaugarri propioak?

¿Zeintzuk dira elementu honen ezaugarri propioak?

IDENTIFIKATU AL DUGU KONTRAESANIK?

Non dago bi elementu hauen arteko paradoxa?

GORDINAREN IRABAZI BIDEGABEAK

Yasuní Parke Nazionalen luze egon den enpresetako bat Repsol multinazional espainiarra izan da. Repsolek 1999 eta 2022 urteen artean 317 milioi upel atera, eta, guztira, 21,665.62 milioi euro fakturatu zituen. Lortutako irabazien % 79 enpresen zein Espainiako Gobernuaren esku geratu dira. Ekuadorko Gobernuak, aldiz, gainerako % 21 jaso du.

- Zer jaso dute ordea inguru horietan bizi diren herri eta komunitateek?
- Zertarako erabiltzen ditugu petrolio eta hidrokarburoak?

HERRITARRON ARDURAK

Euskadin pertsona bakoitzak 5 petrolio litro inguru kontsumitzen ditu egunean.

- Nola banatzen dira zure eguneroko 5 petrolio litroak?
- Nola gutxitu dezakegu egunerokotasunean gure hidrokarburo kontsumoa?
- Benetan zer egiteko prest nago?

EAE-KO ERAUZKETA KASUAK

Estraktibismoak mundu mailan nagusitzen den logika kapitalista eta neokolonialistari erantzuten dio eta Euskadin ere hainbat kasu ditugu.

- Zer itxura hartzen du estraktibismoak Euskadin?

“NI LAS MUJERES, NI LA TIERRA SOMOS TERRITORIOS DE CONQUISTA”

Zein da lurraldean gauzatzen diren praktika estraktiboen eta emakumeen gorputzek jasaten dituzten indarkerien arteko harremana?



- **Adina:** 14-17 | 18-22 | 23-30 | 30tik gora
- **Hezkuntza - etapa:** DBH | Erdi-mailako zikloa | Batxilergoa | Goi- mailako zikloa | Unibertsitatea | Beste bat
- **Generoa:** Emakumezkoa | Gizonezkoa | Ez-bitarra | Ez dut erantzun nahi

LEHEN PENTSATZEN NUEN

- **Lehen pentsatzen nuen** Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak ...
- **Lehen pentsatzen nuen** petrolio-erauzketen ondorioak...
- **Lehen pentsatzen nuen** herrien indigenak...
- **Lehen pentsatzen nuen** ingurumenaren eskubideak ...
- **Lehen pentsatzen nuen** egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokionean nire erantzukizun eta ardurak...
- **Lehen pentsatzen nuen** ezin nuela ezer egin...

ORAIN PENTSATZEN DUT

- **Orain pentsatzen dut** Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak...
- **Orain pentsatzen dut** petrolio-erauzketen ondorioak ...
- **Orain pentsatzen dut** herri indigenak...
- **Orain pentsatzen dut** ingurumenaren eskubideak ...
- **Orain pentsatzen dut** egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokionean nire erantzukizun eta ardurak ...
- **Orain pentsatzen dut** badagoela zer eginik...
 - Indibidualki:
 - Modu kolektiboan: